

***Bihotza golkoan. Martin Ugalde***

J. Muñoz

*HABE*, 177. zk., 1990-06-15: 29.

Martin Ugalderen hamarrian zubia agertzen da ziur. Gerraren ondorioz erbestera joana, han gizondua, han gizon ikasi eta idazle trebe eginda; Euskal Herrira itzuli zen. Erbesteko eta bertako euskaltzaletasunaren zubia pasa zuen gehienek baino irekitasun eta adore gehiagorekin. Euskara batuaren berritasunezko zubia ere igaro zuen, askori bideak irekiz. Erdaraz eta euskaraz idaztearena, beste zubi bat. Zubiak, azkenik, kazetaritza, elkarrizketa eta fikziozko literaturaren artean behin eta berriz, alde batera nola bestera ibiltzeko frogatu dituen gaitasunak.

Azken hilabeteotan, Martin Ugalderen lana ugari jaso dugu. Oraingoan ipuinak bildu ditu "Bihotza Golkoan" izenburuaz. Idazlearen eta gure artean, herri egiten gaituen bihotz amankomunaz ari da, ziurrenik.

Kanpotik kontatzen hasten den narratzailea lehen pertsonan mintzatzera ia oharkabean pasatzerainoko gertutasuna du narratzaileak bere pertsonaiekin. Kanpotik nola barrutik, leun begiratzen du Ugaldek, bihozkor, kidekor. Inoiz ez da, ordea, begirada inozoa, zuria, soilik juntagarri izateko sortua. Hori baino gihar haundiagoa du Ugalderen prosak, hori baino garratzago zaizkio gure inguruko eta gure iraganeko gertakizunak. Bere herkieengandik gertu egon nahi agerikoa dago egoera politikoaren biolentzia saihestuko ez duen fikzioa burutzeko ahalegin honetan.